

Sarraski ez hain urruna

Koldo Sagasti

Lerro hauek idazteko momentuan berrehundik gorakoa da Israelgo okupazio armadak Gazako zerrrendan eraildako herritar zibil palestinarren kopurua, eta auskalo zenbatekoa izango den zuen eskuetara iritsitakoan.

Déjà vu makabro bat. Bizpahiru urtean behin, estatu hebrearreko hauteskunde deialdien edo unean uneko lehen ministroaren gaineko ustelkeria salaketen arabera, Palestinako kostaldeko esparru setiatu hura astintzen duen sarraski odoltsu horietako bat. Beste azkoin-buelta bat duela 73 urte abiatutako garbiketa etniko kanpaina amaigabea. Oraingoan bortizkeria gorakadak abia-

puntua Jerusalem duela diote. Eskuin muturreko talde kontrolgabeek, polizia israeldarraren babesarekin, herritar palestinarren aurka eta esanahi historiko bereziko leku sakratuen aurka burututako segada arrazistek aurrekaririk gabeko erreakzio bateratua eragin dute lurralde historiko osoko palestinarren artean; eta erregimen sionistak suari gasolina botaz erantzun du.

Azken egunetakoa garbiketa etniko iraunkor baten aurpegirik latzena da. Baina prozesu baztertzaila hori arrakastatsua izango bada, horren iskanbiltasunak ez diren bestelako tresnak ere baliatu behar ditu, sotilagoak, egunerokoak.

Jerusalem hamarkadak daramatza apartheid erregimeneko administrazioak hamaika trikimailuz hiriko demografia eraldatu nahian: familia palestinarrak etxegabetuz, auzune palestinarrak birrinduz edo harresiaren bidez hirigunetik bananduz... eta kolonia ilegalei iraunkortasun bermea emango dieten azpiegiturak eraikiz. Eta azpiegitura horietako bat, Beasaingo CAF konpainia Jerusalem Ekialdeko eremu okupatuetan eraikitzen ari den trenbidea, funtsezkoa da palestinarrak hiriburutik ezabatzeke proiektu supremazistan. Horixe da euskal ekarpena uste baino hurbilagoa zaigun sarraski hari. •

Legezaleak

**Xabier Izaga
Gonzalez**

NBERen Segurtasun Kontseiluak ez du Palestinako sarraskiaren gaineko mezu ziztrin bat ere plazaratu, AEBen betiko jarrera dela eta. Europar Batasunak, beste horrenbeste, bere kideen jarrera guztiz desberdinak direla eta. Edonola ere, lerrook idazteko garaian badirudi areagotu egin dela Israelen eta Palestinaren arteko su-eten bat deklaratzeko nazioarteko presioa. Nazioarte horretako kide gehienek, hala ere, argi utzi dute beren jarrera gatazka horri dagokionez.

Erresuma Batua, Alemania eta AEBak, besteak beste, Israelen alde agertu zi-

ren, Estatu horrek «bere biztanleria defendatzeko eskubidea duelako»; hori bai, batzuek erantsi dute Israelen erasoei «neurrikoak» izan behar dutela, eta biktima zibilak saihestuz eginak. Gaitz erdi.

Baina arrazoi dute. Areago, Israelek bere biztanleria defendatzeko eskubidea ez ezik, betebeharra ere badu, biztanleria horren parte bat palestinarra dela ahaztu gabe. Eta gainera lurralde okupatuetako biztanleria ere babestu behar du, okupatzailea denez gero, Genevako Hitzarmenen arabera behinik behin. Gaitz erdi.

Espainiak ere bertan behera utzi zuen bere betebeharrak hori 1976an, Marokoren Ibilaldi Berdearen ostean, Ceutako migrazio krisia delakoak egunotan gogorazi duenez. Izan ere, deskolonizazio prozesua burutu arte Estatu espainolari dagokio Mendebaldeko Saharako biztanleriaren segurtasuna. Ez nik diodala, nazioarteko zuzenbideak hala xedatzen duelako baizik.

Espainia, AEBak, EB, nazioarteko komunitatea... legezale amorratuak dira, baina legeria bete «bitartean», hainbat herri eta herritarren bizirauteko eskubidea ere ahaztuta daukate. Ukatuta, alegia. •